AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

HEZKUNTZA SAILA

3008

AGINDUA, 2022ko ekainaren 14koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez iragartzen baita sail honetan lanpostu bat izendapen askez betetzeko deialdi publikoa.

Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Ikuskaritzako lanpostuen zerrenda onartzen duen urtarrilaren 13ko 3/2009 Dekretuak ezarri zuen Hezkuntza Ikuskaritzako Ikuskari Zentralaren lanpostua. Lanpostu horren eginkizunak Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Ikuskaritzari buruzko ekainaren 28ko 98/2016 Dekretuaren 12. artikuluan daude jasota.

Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Ikuskaritzari buruzko ekainaren 28ko 98/2016 Dekre tuaren 10.6 artikuluan xedatzen denez, zuzenean Ikuskari Nagusiaren mendean egongo dira Ikuskari Zentralak, eta Hezkuntzako sailburuak izendatuko ditu, Ikuskari Nagusiak proposatuta, izendapen askearen prozeduraren bidez.

Bat etorriz Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 47. eta 48. artikuluetan xedatutakoarekin, sail honek erabaki du deialdia iragartzea agindu honen eranskinean azaltzen den lanpostua izendapen askez betetzeko. Hona hemen deialdiaren

OINARRIAK

Lehenengoa.– Agindu honen eranskinean eskatzen diren baldintzak betetzen dituzten karrerako funtzionarioek eska dezakete agindu honen bidez iragartzen den lanpostua.

Bigarrena.– Interesdunek Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzara bidali beharko dituzte eskabideak, 15 egun balioduneko epean, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera. Eskabidean, datu pertsonalak eta gaur egun duten destinoa adierazi beharko dituzte.

Hirugarrena.– Izangaiek, idazkiarekin batera, curriculum vitaea aurkeztu beharko dute, datu hauek jasoko dituena:

Titulu akademikoak.

Herri Administrazioan betetako lanpostuak.

Ikasketak, ikastaroak, hizkuntzak eta egoki iritzitako beste merezimendu oro.

Aurrekoaz gain, eskatzen diren betekizunen eta alegatutako merezimenduen egiaztagiriak aur keztu beharko dituzte. Halaber, egoki iritzitako argitalpen, txosten edo agiri oro aurkeztu ahal izango dituzte.

Laugarrena.– Hezkuntzako sailburuaren agindu baten bidez ebatziko da deialdi hau, gehienez ere hilabeteko epean, eskabideak aurkezteko epea amaitu eta biharamunetik aurrera. Agindu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

Bosgarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Agindu honen aurka, aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da administrazioarekiko auzien epaitegian, bi hilabeteko epean, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko ekainaren 14a.

Hezkuntzako sailburua,
JOKIN BILDARRATZ SORRON.

ERANSKINA

Lanpostua: lanpostu 1. Izena: Ikuskari nagusia.

Kokalekua: Ikuskaritza Nagusia. Destinoaren kokalekua: Vitoria-Gasteiz. Titulazio-taldea: A1 taldea.

Kidegoa: Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzako Ikuskariak.

Urteko berariazko osagarria: 7.761,04 euro.

Hizkuntza-eskakizuna 2., egiaztatua.

Lanpostua betetzeko baldintzak:

Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzako Ikuskarien Kidegoko karrerako funtzionario izatea.

Jarduneko zerbitzuan, zerbitzu berezietan edo seme-alabak edo senideak zaintzeko esze- dentzian egotea.

Era berean, aipatutako kidegoko karrerako funtzionarioek ere parte hartu ahal izango dute lehiaketan, baldin eta nahitaezko eszedentzian, beste administrazio publikoren batean lanean, funtzio-gabetuta edo borondatezko eszedentzian badaude. Horretarako, egoera horietarako eza- rritako epea bete beharko dute, eta jarduneko zerbitzura itzuli beharko dute.